



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

### **Ekoizle txiki eta handiek sorturiko etxeko hondakinen zatikiak biltzeko edukiontziz hornitzeko lizitazio iragarkia**

#### 1.- Erakunde esleitzaila.

- a) Organismoa: Debagoieneko Mankomunitatea.
- b) Espedientea bideratzen duen bulegoa: Idazkaritza Nagusia.
- c) Dokumentazioa eta informazioa lortzea.
  - 1.- Bulegoa: Debagoieneko Mankomunitateko Idazkaritza Nagusia.
  - 2.- Helbidea: Nafarroa Etorbidea, 17.
  - 3.- Herria eta posta-kodea: Arrasate-Mondragón, 20500.
  - 4.- Telefonoa: 943793399.
  - 5.- Telefaxa: 943770854.
  - 6.- Korreo elektronikoa: [kontratazioa@debagoiena.net](mailto:kontratazioa@debagoiena.net)
  - 7.- Kontratatuzailearen profilaren Interneteko helbidea: [www.debagoiena.com](http://www.debagoiena.com)
  - 8.- Dokumentuak eta informazioa lortzeko epea: 15 egun natural iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengotik zenbatzen hasita.
  - 9.- Espediente zenbakia: 2014/03 hornikuntzak.

#### 2.- Kontratuaren xedea.

- a) Kontratu-mota: hornikuntza kontratua.
- b) Xedearen deskribapena: ekoizle txiki eta handiek sortutako etxeko hondakinen zatiki edo frakzio desberdinak biltzeko, hainbat edukieratako edukiontziz hornitzea.
- c) Lotekako zatiketa eta zenbakia: 9 lote. Kopurua ez da aldezturik zehazten.
  - 1. LOTEA (10 l.ko edukiontzia)
  - 2. LOTEA (20 l.ko edukiontzia)
  - 3. LOTEA (40 l.ko edukiontzia)
  - 4. LOTEA (60 l.ko edukiontzia apala)
  - 5. LOTEA (80-90 l.ko edukiontzia)
  - 6. LOTEA (120 l.ko edukiontzia)
  - 7. LOTEA (240 l.ko edukiontzia)
  - 8. LOTEA (360 l.ko edukiontzia)
  - 9. LOTEA (1.000 l.ko edukiontzia eta bere elementu gehigarriak: pedalak, tapa arruntak eta leiho txikidun tapak)
- d) Entregatzeko lekua: Debagoieneko Mankomunitatearen lurralde-eremua.
- e) Kontratuaren iraupena: bi urte. Eskaera bakoitza entregatzeko epea: hilabete t'erdi.
- f) Luzapenak: ez.

#### 3.- Tramitazioa eta prozedura.

- a) Tramitazioa: ohikoa.
- b) Prozedura: irekia.
- c) Enkante elektronikoa: ez.

d) Esleipen irizpideak:

- Proposamen ekonomikoa: % 70.
- Dokumentazio tekniko-a Ezaugarri tekniko eta funtzionalak: % 30.
  - Neurriak, pisuak, materialak, akaberak, etabar: 12 puntu.
  - Erabilera, lekualdatze eta zamalanetan erabiltzeko erraztasuna: 8 puntu.
  - Edukiontzien osagaiak muntatzeko eta desmuntatzeko erraztasuna: 6 puntu.
  - Segurtasun-sistemak: 4 puntu.

4.- Kontratuaren balioaren zenbatespena: 74.500 €, BEZ kanpo.

5.- Enkantearen oinarritzko aurrekontua, BEZ gabe.

- 1. LOTEA (10 l.ko edukiontzia).....3 €/unitatea.
- 2. LOTEA (20 l.ko edukiontzia).....7 €/unitatea.
- 3. LOTEA (40 l.ko edukiontzia).....9 €/unitatea.
- 4. LOTEA (60 l.ko edukiontzia apala).....35 €/unitatea.
- 5. LOTEA (80-90 l.ko edukiontzia).....40 €/unitatea.
- 6. LOTEA (120 l.ko edukiontzia).....50 €/unitatea.
- 7. LOTEA (240 l.ko edukiontzia).....60 €/unitatea.
- 8. LOTEA (360 l.ko edukiontzia).....70 €/unitatea.
- 9. LOTEA
  - 1.000 l.ko edukiontzia taparik gabe.....230 €/unitatea.
  - 1.000 l.ko edukiontziaren pedala.....50 €/unitatea.
  - 1.000 l.ko edukiontziaren tapa arrunta.....20 €/unitatea.
  - 1.000 l.ko edukiontziaren leiho txikidun tapa.....90 €/unitatea

6.- Bermeak.

- Behin behinekoa: ez da eskatzen.
- Behin betikoa: aurreikusitako oinarritzko aurrekontuaren %5a, lote ezberdinen artean proportzioan banatuta.

7.- Kontratistaren berariazko betebeharrak.

- Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala: arrisku profesionalengatik kalte-ordainetarako 300.000 €-ko edo zenbateko handiagoko aseguruua eta azken hiru urteetan kontratu honen xedearen antzeko hornidurak egin izana egiaztatzea.

8.- Eskaintzak edo parte hartzeko eskariak aurkeztea.

- a) Aurkezteko epea: 15 egun natural iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengotik zenbatzen hasita. Epearen azken eguna larunbata bada hurrengo lanegunera arte luzatuko da.
- b) Aurkezteko era: Administrazio Klausula Partikularren Agirian zehaztutakoa.

- c) Aurkezteko lekua:
  - 1.- Bulegoa: Debagoieneko Mankomunitatea, Idazkaritza Nagusia.
  - 2.- Helbidea: Nafarroa Etorbidea, 17.
  - 3.- Herria eta posta kodea: Arrasate-Mondragón, 20500.
- d) Enkantegileak bere eskaintzari eutsi beharko dion epea: 3 hilabete.

9.- Eskaintzak irekitzea.

- a) Deskribapena: 2. gutun-azala irekitzea, "Dokumentazio teknikoa".
- b) Erakundea: Debagoieneko Mankomunitatea. Nafarroa Etorbidea, 17.
- c) Herria: Arrasate-Mondragón, 20500.
- d) Data eta ordua: proposizioak aurkezteko epea bukatu ondorengo bosgarren laneguna, hau larunbata denean izan ezik, kasu honetan hurrengo lehen laneguna izango baita. Goizeko 10:00etan. 2. gutun-azala irekitzea.

10.- Iragarkien gastuak: esleipendunak ordaindu beharko ditu.

Arrasate, 2014ko uztailak 8a.- Lehendakaria.